

MUNDU GARAIKIDEAREN HISTORIA (MUGH)

Irakaslea | Irandatz Aurkenerena Arbelaitz | Maila | 1.Batxilergoa | Ikasturtea | 2020-2021

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

- Gaur egungo munduaren funtsezko ezaugarriak eta arazo nagusiak globalizatu dira, ondorioz giza taldeen bizitza baldintzatzen duten fenomeno globalak ezagutzea ezinbesteko baldintza da inguruko errealitatean modu kontzientean kokatzeko, azaltzen diren arazoak ulertzeko eta horien aurrean zentzuzko erabaki pertsonalak hartzeko, bai eta etorkizuna eraikitzen modu aktibo eta arduratsuan lagunduko duten konpromisoak ere.
- Egoera horretan, Mundu Garaikidearen Historiak zeregin garrantzitsua betetzen du: orainaldia, prozesu bukatugabe baten faseetako bat dela ulertarazten du, iraganeko elementuen gainean eraturta dagoela, eta posible dela oraingo konpromisoen bidez etorkizuna moldatzea. Jakintza historikoak, bestalde, oraingo errealitatea atzeman nahi du berezko dituen mekanismoak erabiliz: gertaeren jatorriaren eta bilakaeraren ikerketa eta haien arteko loturen analisia. Astero 4 eskolaldi dugu .
- Ikasgai hau Arteko Batxilergoan ematen denez, Historiara arte mota ezberdinen bitartez hurbilduko gara. Helburua arte manifestazio ezberdinen bitartez (musika, margoa, komikiak, zinema, literatura, kartelgintza, poesia...) Munduko Historia Garaikideko prozesu eta eboluzio nagusiak ezagutzea izango da.

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

1) Hizkuntza komunikazioa.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.	1		3		5			8	9	10
3) Gaitasun digitala.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
4) Ikasten ikastea	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
6) Ekimena eta ekintzailtza.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

EDUKIAK

IKASGAIKO EDUKIAK

1. ANTZINAKO ERREGIMENA
2. ANTZINAKO ERREGIMENAREN KRISIA
3. INDUSTRIA IRAULTZA ETA GIZARTEAN EKARRI ZITUEN ONDORIOAK
4. EUROPAKO NAGUSITASUNA MUNDUAN ETA, LEHEN MUNDU GERRA
5. GERRARTEKO GARAIA, II MUNDU GERRA ETA BERE ONDORIOAK
6. BI MUNDU DESBERDINEN BILAKAERA ETA HAREN LISKARRAK
7. DESKOLONIZAZIOA ETA HIRUGARREN MUNDUA
8. BLOKE KOMUNISTAREN KRISIA

9. MUNDU KAPITALISTA XX. MENDEAREN BIGARREN ERDIALDEAN
10. GAUR EGUNGO MUNDUA IKUSPEGI HISTORIKOTIK BEGIRATUA

Denbora faltagatik, batzuetan bloke batzuk azaletik landuko dira, beste batzuk sakonago landuko diren bitartean. Irakasleak erabaki beharko du zein bloketan zentratzen den.

SKOLAE

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko **Skolae Berdin Bidean** programan integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan txertatuta daude.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

[Batxilergoko kurrikuluma](#)

Irakasleak baloratuko du Batxilergoko Kurrikulumean dauden ebaluazio irizpide eta estandarretatik zeintzuk landuko dituen. Orokorrean, Munduko Historia Garaikidearen prozesu/eraldaketa nagusien ezagutza minimoak ahalbidetzen dituzten estandarrak landuko dira. Koadro hau orientagarria da, irakasleak erabakiko du bloke bakoitzari zenbat denbora eskaintzen zaion.

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
10	1. BLOKEA	20	4. BLOKEA	5	6. BLOKEA
10	1. BLOKEA	20	5. BLOKEA	5	7. BLOKEA
10	1. BLOKEA			5	8. BLOKEA
				5	9. BLOKEA
				5	10. BLOKEA

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Metodologiak hainbat eredu uztartuko ditu. Azalpen magistralak oso gutxitan emago dira, eta hau egiten denean, talde lanak egiteko beharrezkoak diren eduki eta azalpenak emateko izango da.

Oro har, Artea eta Historia Garaikidea uztartzen dituzten lanak planteatuko dira. Ahal dela lan hauek talde lan moduan egingo dira, nahiz eta lan indibidualak ere izan daitezkeen. Azterketak egitea ez da beharrezkoa izango, nahiz eta egin daitezkeen.

Ikasleei ahalik eta askatasun handiena emango zaie beraien lanak sortzerako orduan, muga bakarra beraien lanekin proposatu dizkiegun gai/prozesu historikoak lantzea izango da. Ahal den guztietan, ikasleak gogoeta egitera bultzatuko ditugu, pentsamendu historiko eta kritiko bat garatu dezaten.

Irakasgai honetan ez da testu libururik erabiliko.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

- Kalifikazioaren % 90 lanek edo azterketek osatuko dute. Azterketak egiten badira, hauek kalifikazioan asko jota lanek duten pisu berdina izango dute.
- Kalifikazioaren beste % 10 ikasleen jarrerak osatuko dute, hau da, eguneroko lana, eguneroko ariketak, euskararen erabilera, gelara etortzea, eta besteekiko errespetua errazten dituen jarrera, irakasleak etengabeko beketaren bidez baloratuko da.
- Kalifikazioa osatzeko, lan edo azterketa bakoitzean gutxienez 4 atara behar da. (Azterketak, egiten badira, beti ere, landutako kontzeptuei eta prozedurei lotuta. Azterketa bakoitzean

azalduko da atal bakoitzaren balorazioa).

- Ebaluazioa gainditzeko gutxienez, 5 atera behar da.
- Sakeleko telefonoak debekatuta daudenez, irakasleak jaso behar izanez gero puntu bat kenduko zaio ikasleari ebaluazioan

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

- Gutxieneko emaitza 5 izango da kasu guztietan.
- Azterketak 10-eko balioaren gainean zuzenduko dira.
- Hamarrenak ere erabiliko dira kalifikazioetarako.
- **Borobiltzea:**
Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:
 - Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
 - Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.
- **Ikasturte bukaerako** nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.
- Azken nota hiru ebaluaketetan lortutakoaren batez bestekoa izanen da, baldin eta guztietan 5 baino gehiago atera den.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

BERRESKURAPENAK

Ebaluaketa gainditzen ez dutenentzat berreskurapen plangintza egingo da. Honetan, finkatu gabeko edukiak finkatzea izango da helburua, eta, irakasgaiaren funtzionamendu orokorrarekin bat eginez, lanak hobetsiko dira azterketen aurretik, nahiz eta hauek ere egin ahalko diren. Berreskurapenaren nota gehienez 6 izango da. Ikasleak berreskurapen plana 5 eta 7 arteko kalifikazio batekin gainditzen badute, beraien nota 5 izango da. 7 baino gehiagoko kalifikazio bat lortuz gero, bere kalifikazioa 6 izango da.

NAHIKOTASUNA

Kurtso amaieran ebaluazioren bat gainditu gabe duten ikasle guztiek Nahikotasun plangintza egin beharko dute. Plangintza, gainditu ez diren ebaluazioak berreskuratzeko prestatuko da. Honetan, finkatu gabeko edukiak finkatzea izango da helburua, eta, irakasgaiaren funtzionamendu orokorrarekin bat eginez, lanak hobetsiko dira azterketen aurretik, nahiz eta hauek ere egin ahalko diren. Berreskurapenaren nota gehienez 6 izango da. Ikasleak berreskurapen plana 5 eta 7 arteko kalifikazio batekin gainditzen badute, beraien nota 5 izango da. 7 baino gehiagoko kalifikazio bat lortuz gero, bere kalifikazioa 6 izango da.

EZ-OHIKO BERRESKURAPENA

Kurtso amaieran ebaluazioren bat gainditu gabe duten ikasle guztiek Ez Ohiko plangintza bete beharko dute. Plangintza, gainditu ez diren ebaluazioak berreskuratzeko prestatuko da. Honetan, barneratu ez diren edukiak finkatzea izango da helburua, eta, irakasgaiaren funtzionamendu orokorrarekin bat eginez, lanak hobetsiko dira azterketen aurretik, nahiz eta hauek ere egin ahalko diren. Gehienezko nota 5 izango da.